

AQUAPODS

KANALAK

Gure bezeroekin komunikatzeko kanal garrantzitsuenak hurrengoak dira: Hasteko, gaur egun oso famatuak diren sare sozialen bitartez gure produktua erakustea eta hilero zozketak egitea. Ondoren, igerilari famatuekin kolaborazioak egitea, haiek gure produktua erakusteko. Gero, herri desberdinetako igerilekuetan eta gimnasioetan gure produktuari buruzko deskontuak banatzea. Azkenik, Google eta antzerako webguneetan publizitatea bidaliz.

Gure aurikularrak banatzeko leku desberdinak aukeratu ditugu: Hasteko webgune bat izango dugu eta horren bitartez gure kaskoak bidaliko ditugu mundu osora. Hori eta gero, aurretik aipatu dugun Speedo-ren dendetan banatuko dugu gure produktua. Gero, kirol denda herrikoietan gure produktuak salduko ditugu. Azkenik, igerilekuetan gure produktuak saltzeko bide baliagarria, vending-makinak izango dira, nahiko arraroa da horrelako produktuak makinetan ikustea eta noski berritzailea izango da.